

Euskara XXL

Euskaldunok martxan jartzen ditugun ia prozesu guztietan herritarren babesa eta laguntza eskuratu behar direla aldarrikatzen dugu, aurrea egin ahal dezaten besteek jartzen dizkiguten oztopoen gainetik. Prozesuen etorkizunak elkarrizketa eskatzen duela deidarkatzen dugu, denen arteko elkarrizketa dinamika bat. Prozesuek oinarri sendoak eta printzipio argiak dituztela, irekiak izan behar dutela, lehia politikotik babestuek egon, inolako bazterketarik gabe, akordio zabala lortzea dutela helburu, ikuspuntu eta sentsibilitate anitzak bilduko dituen akordioa. Denen Adostasuna ahalbidetu behar dugula proklamatu dugu. Orain, ez dakit nik bene-benetan ba ote dakigun garbi Adostasun horrek zer esan nahi duen. Iruditzen zait euskaldunok euskaldunen artean ados jartzen badakigula, halako ohitura bai baitugu gauza guztiak oso demokratikoa den jarreraz adosteko, baina kontrako bidean, hau da, gauzak adostasunaren alde adosteko partez, ados jartzen garela gauza horiek guztiak ahalik eta desadostasun handienaz adosteko. Behar bada ez da erabat gure kulpak, eta gure izaerak berak behartzen gaitu adostasun handiz desadostasunarekin harro pozik elkar bizitzera. Iritsi dira aurtengo sanpelaioak, eta egiaz Euskal Herriaren historia eta aniztasun politiko eta instituzionala bikain erakusten duen prozesuaz disfrutatzen egon naiz Zarautzen: “elkarlanean” antolatutako festen egitarauan adostutako hiru egitarau ezberdin egon dira, Inurritzaiko Egitaraua, Gurekin Jai Festa Batzordearen Egitaraua eta Udalaren Egitaraua. Hala hobe. Gipuzkoako Foru Aldundian ere adostu dute Real Sociedad futbol taldearen babesle publizitario bakarra izatea. “Gipuzkoa euskarekin bat” izango omen da elas-

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Rozas



Urkiza

tikoetan agertuko den publizitatea. Hitzarmenaren arabera, euskararen aldeko mezuaren truke, Foru Aldundiak 1,2 milioi euro inguru ordainduko dizkio “Errealari” hurrengo denboraldian. Euskaldunak maitagarriak baikara ados jartzen garenean, eta saiatu egiten gara munduko beste gizakiak

bezain zitalak ez izaten: horregatik hori bezalako diru-laguntza publikoa futbol talde bati ematea behar-beharrezkoa dela konprenitzen dugu, ados gaude, eta itsusi zaigu penagarria edota iraingarria dela pentsatzea, nola pentsatuko dugu ba halako gauzarik egiten duguna euskararen alde egiten badugu; horregatik, elkarrekin ados jartzen dakigulako, ametitzen dugu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak edota Eusko Legebiltzarreko presidentek euskaraz ez jakitea, eta itsusi zaigu penagarria edota iraingarria dela esatea, nola esango dugu ba halako gauzarik egiten duguna Euskal Herriko pluraltasunaren interesen defentsarik eraginkorrenaren alde egiten badugu; maitagarriak garelako, horregatik da, sinistazue, euskaldunak ados gaude beste hizkuntza ofizial guztiak maite ditugula, beti maiteko ditugula, eta alarmismo hutsa dela, ez da maitasuna, ez da kultur zaletasuna ere, alarmismo hutsa besterik ez dela Euskal Herrian gero eta euskara gutxiago eta narratsagoa hitz egiten, idazten eta irakurtzen dela baieztatzea, nola baieztatuko dugu ba halako gauzarik euskaraz dakiten herritarren kopurua igoz doan, inoiz baino euskaldun gehiago dagoen honetan. Behin, euskaldunen arteko akordioaren aldeko formulak landu eta adostu egin beharko zirela oihukatzen zuen euskaldun bat ezagutu nuen, baina euskaldun jendeak, ahots batez, guztien adostasunez, tipo berezi eta kontserbadoretzat hartu genuen. ■



Iruditzen zait euskaldunok euskaldunen artean ados jartzen badakigula, halako ohitura bai baitugu gauza guztiak oso demokratikoa den jarreraz adosteko, baina kontrako bidean, hau da, gauzak adostasunaren alde adosteko partez, ados jartzen garela gauza horiek guztiak ahalik eta desadostasun handienaz adosteko

